

Bezeroarekiko harremana

asteko, bezeroak gure erraztasun, erosotasun eta berrikuntzengatik bezeroak mantendu eta haziaraziko ditugu. Garraiobide guztietan zerbitzari desberdinak egongo dira bezeroen erosotasuna bermatzeko, eta arazoren bat izaten badute, erraztasunak izango dituzte hura konpontzeko. Horrela bezeroen konfiantza eskuratuko dugu, eta gure garraiobideetan eroso sentituko direnez, errepikakorrak izango dira. Modu berean ere bezero berriak erakarriko ditugu, azken finean, berritasun bat badago eta iritzi positiboak baditu, hura eskuratu edo probatzera bultzatzen dizute. Motxean, gure zerbitzuak autozerbitzuan eta laguntza pertsonal eskeinian oinarrituko dira bereziki.